

# ERBESTERATUAK

Haurtzaroari buruzko bilera batera baino, ama bilera batera etorri naizela ematen du. Zenbat emakume egongo ote dira hemen? Berdin dio, ez daukat ezta kontatzeko indarririk ere. Demagun berrogei bat garela. Denak emakumezkoak. Ez. Itxaron. Hor, gelaren ertz batean, bi gizona daude. Eskerrak, horrela aniztasuna gorai patuko du gero irakasleak eta berdintasuna eta guzti hori. Emakumearen emantzip...blablabla...

Eserleku bat aurkitu eta programa zabalduko dut, ez dut aurreko eguneko materia irakurtzeko astirik izan. Ea zer dugun, ea zer dugun hemen... Bai! Haurren zaintza, bigarren kapitulua: psikomotrizitatea. Arratsaldeko zortziretan psikomotrizitate moduko hitzak erabiltzea delitua behar luke. Psikomotrizitatea edo “nola mugitzen den arrastaka korridoreko zorutik nire memelitoa”. Kar kar kar! Jode Elene, barrerik ez. Ganoraz irakurri behar nuen gaia etorri baino lehen, ildoak galduko dut segituan bestela. Baina nola irakurriko nuen? Andoni lanean, ama ospitalean, ahizpa atzerrian eta Oihan etxeko korridoretik bueltaka nik artikuluak idazten ditudan bitartean. Eskerrak ez duen askorik negar egiten gaixoak.

Irakaslea etorri da. Hastear gaudela ematen du. Borobil eran jarrita daude aulkiak, denok elkar ikusi ahal izateko eta hori. Nik ez dakit ikusia izan nahi dudana, baina tira.

- Aurreko astean guztiokin batera hasi ez zinetenak edo lehenago joan zinetenak pasatu gero aurrera eta asteleheneko aktaren laburpentxoak emango dizuet. Badakizue metodologia partehartzailearen partaide garela... eta bla bla bla.

“Guztiokin batera hasi ez zinetenak” talde horretan ez, baina “lehenago joan zinetenak” horretan banago. Hatz erakuslea gupidagabe dabil gaur. Baina noski, nola ez nintzen ba joango? Amaginarreba umearekin zain nuen, ezin zuela hain berandurarte umearekin geratu ni halako ikastaro txotxoloetara etortzeko. “Ama izatearena instintua

da Elenita, instintua! Eta hori ez da ikasten” Elenita eta ama instintua, biak gorroto ditut. Elene naiz Mari Karmen, E-le-ne.

Irakasleak hizketan jarraitzen du. Adi egoten saiatuko naiz.

- Gaur, beste ezertan lanean hasi baino lehen, galdera batekin hasi nahi dut klasea. Mesedez atera folio zuri bat. Idatzi hor galdera eta burura berehalakoan datozkizuen ideiak. Galdera hauxe da: zertarako nator ikastaro honetara? Banan banan komentatuko ditugu gero zuen erantzunak.

Bueno, bueno, bueno. Galdera txepelagorik egon daiteke? Zertarako nator ni hona? Joder ba ikasteko! Ez? Jakinminagatik, beste amen aurrean zeozer esan ahal izateko, Oihanekin jolas ezberdinak egin ahal izateko, Mari Karmenen gomendioei jaramonik ez egiteko... Ez da galdera hain txepela ez, badauzka erantzun asko. Folio zuria eskatuko diot ondokoari.

- Folio zuri bat daukazu?

Bai, badauka. Nolatan ez naiz lehenago fijatu; Ainize da! Ainize, ikastolako Ainize! Ni baino bi urte gazteagoa. Oso goiz gelditu zen haurdun. Ikastola amaitu eta handik gutxira. Bakarrik egin behar izan zuen dena berak. Zer ibiliko da hemen? Umeak hamabi urte izango ditu dagoeneko, ez dut uste halako ikastarorik behar duenik. Bigarren bat izango zuen agian? Norekin? Oso lanpetuta ibili naiz azkenaldian eta ez dut munduko ezeren berri izan.

- Eskerrik asko Ainize.

- Ez horregatik Elene.

Bistaz ezagutzen nauela badakit behintzat. Nire semeak hamabi urte izango ditueneko berak baino zimur gehiago izango ditudalakoan nago. Pentsatuko du: zertan ibiliko da hau ume batekin? Ez daukat ama antzik. Edo agian bai, nik zer dakit.

Andonirekin ezkondu nintzenean bikote modernoak ginen. Ezkontzarena tramite burokratiko bat baino ez zen izan, besteari zeozer gertatzekotan herentziak eta beste paperak egitea errezago zelakoan. Gainera Oihan izan nahi genuen, haurdun geratu nahi genuen. Guraso didaktiko-moderno-hiperpartehartzaile horietako batzuk izango ginela erabaki genuen: profesionalak, familia modernoaren defendatzaileak sutsuenak (hau da, eredurik gabeko familiarenak), ardurak banatuko zituen bikote super koordinatua (larrutan astean lau aldiz minimo). Nire super-ama papera aldatu eta super-guraso bihurtuko ginela erabaki genuen, super bikote. Garai onak ziren haiek. Gero Oihan heldu zen. Akabo planak.

Bale Elene, baina kontzentratu, galderari erantzun behar diozu. Zertarako etorri zara? Ez dakit. Aireak hartzeko, etxetik kanpo arnasteko aitzakia izateko. Agian oso erradikala da hori, norbaitek entzungo balu... Baina nork entzungo ditu ba zure buruko pentsamenduak? Ez izan memela eta esan ozen (zeure barnerako): arnas egin nahi nuelako etorri naiz!

Begizuloak nabaritzen zaizkit, badakit hala dela. Gau osoa pasa dut amaren ondoan ospitalean. Giltzurrunak gaizki ditu eta han egon behar nuen. Derrigor. Nire ama da. Zaindu behar dut, nire ardura da, horrela dira gauzak familian: pisua oinarri sendoenaren gainean, hau da, inertziaz, gertuen dagoen emakumearen gainean. Baina, atzokoa, Andonirena, hori bai ez nuela espero, “nik bihar lan egin behar dut, eta gainera zure ama da” bota zuenean. Ez dakit zer den txarrago, “lan egin behar dut” edo “zure ama da”. Eta bere ama nor demonstrerena da? Tontoa naiz batzutan. Mari Karmeni mesedeak egitera noa, gero Oihan zaintzen duenean errudun ez sentitzeko. Eta bere semeak? Bere semeak ez al du ezer ere egin behar? Edo Oihan niretzat zaintzen du bakarrik? Ni ikastaro txotxolo hauetara etortzeko? Ez horixe!

Nire ama gaixoa orain bakarrik egongo da baina ezin dut Andoni bidali lanetik irten berri dagoelako. Nekatuta egongo da. Joder eta zer? Lanetik? Eta ez al dut nik lanik egiten? “Baina ez da berdina” esaten dit. Haurdun nengoenean, lehenengo asteetan, etxetik lan egingo nuela erabaki genuelako da hori, hortik dator dena. Tranpa bat izan zen. Andonik bazekien ni ez nintzela etxean geratuko bestela, “kanpoko” lanik gabe, etxekoandre perfektuaren papera egiten. Baina Oihanekin egon nahi nuen ere. Eta tranpan jausi nintzen “etxetik artikuluak idatzi ditzakezu” horrekin. Bai noski, artikuluak idatzi Oihanen biberoiak prestatzen ditudan bitartean, edo Oihanen pixoihalak aldatzen ditudala. Gero etxea garbitzea, erosketak egitea eta bazkaria prestatzea. *Portzierto*, agendan apuntatu behar dut komuneko papera falta dela. Eta gero señoritoa etxera heldu eta umearekin egotera, super aita baten moduan. Eta ni ere super-ama bat naizela guztiarekin ahal dudalako, eta Oihanek zorte handia duela hain ondo koordinatzen garelako. Bai noski!

Zertara etorri naiz hona. Ez dakit. Oihanentzat gauzak egiteko nentorrela pentsatu dut, baina ez dakit benetan ere hala den. Oihan, nire koxkortxoa. Nik ez dakit besotan ondo hartzen dudana, baina berari asko gustatzen zaio eta horrek dauka niretzat garrantzia gehiago.

Irakaslea hitz egitera doa:

- Beno, zelan doa galdera. Komentatuko dugu guztion artean? Nork hasi nahi du?

Nik ez, nik ez, nik ez, nik ez...

- Mertxe hasiko da, ados? Esan, Mertxe, zertarako zatoz ikastarora?

- Gehiago ikasteko.

Topikoa. Nik ere hori erabiliko nuen. Orain beste zeozertan pentsatu beharko dut. Berez, jakin ere ez dakit ondo zertara etorri naizen. Izan argia Elene, eta egon isilik

disimulatzen. Baina zer disimulatzen? Ba ez naizela espero zenuen ama, emazte eta alaba perfektu hura eta kitto.

Joder, Mari Perfekta etorri da gaur ere klasera. Mari Perfektak ez dauka akatsik, ez ama moduan ezta gizaki moduan ere. Mari Perfektak hiru seme-alaba ditu eta fisikoki ni baino askoz hobeto dagoela esango nuke. Gainera Mari Perfektak (hemendik aurrera Mariper) haurrei buruz jakin behar den guztia eta gehiago daki. Lehenengo egunean ez zion axola izan ozen esatea “ama batek hori jakin behar du” esaldia, eta gehien harritzen nauena: besteok *amen* egiten geniola buruaz. Hainbeste urteko emakumeen borroka esaldi batean hankaz gora jarri zuela iruditzen zait: ama batek hori jakin behar du. Mari Karmen datorkit gogora eta bere “instintua Elenita, instintua”. *Amen* amen instintuari.

- Lucia zuk ere komentatuko diguzu jarri duzuna?- galdetzen jarraitu du irakasleak.

Luciak, hitz totala bada ere, parrafada ederra bota du haurren estimulazioaren garrantziari buruz eta amaren partehartzeaz. Wikipediatik ateratako informazioa buruz ikasi izan balu bezala esan du dena. Gainera “amaren” esan du, eta ez “gurasoen”, baina inork ere ez dio ezer esan. Txintik ere ez. Ba ez du bikoterik izango, edo dibortziaz egongo da agian, edo alargun, edo gurasoak bi direla (edo izan daitezkeela) ulertzen ez duen horietako bat izango da, auskalo.

Irakaslea hasi da berriro hizketan:

- Banan banan egitea baino, agian ondokoarekin elkarriketa txikia izatea komeniko litzaiguke ideiak elkarbanatzeko. Gero bien arteko bozeramale bat aukeratu eta denok entzuteko moduan botako ditugu ideiak eta iritziak, ados?

Bikoteka, *ergo* Ainizerekin hitz egin behar dut. Ez dakit ezaguna izatea ondo datorkidan. Beno, ze ostia! Tokatu zait eta punto, ez diot ezer ere saldu behar!

- Elkarrekin jarriko gara? – esan diot.

- Bai, ondo. - Bota du urduri.

Egia esan ikastolari buruz hasi gara hizketan. Inork ere ez du ildora jo nahi, sekretuen kutxa beltza zabaltzera. Irakaslea gure ondotik pasa denean jarri gara martxan. Ainize hizketan hasi da berriro.

- Egia esan nik atsedean hartzeko baino ez dut hona etorri nahi – bota dit erdi lotsatuta Ainizek.

Harrituta geratu naiz oso. Ainize ere kokoteraino? *Amen* esaten zuen horietakoa zela uste nuen, baina egia esan berak ere berdina pentsatuko du nitaz.

- Jo! Eskertzen dizut zintzotasunez hitz egin izana Ainize. Ni ere kokoteraino nagoelako egin dut ihes hona. Badirudi haurrarekin zerikusirik ez duen beste ezer egitea traizioa dela!

- Hori da! Zurekin guztiz ados nago Elene. Gainera nik bat ez: bi! Beste txiki bat izan nuen duela hiru hilabete eta kolapsatu beharrean nago.

- Eta, atrebentzia ez bada, ez dizu umearen aitak laguntzen?

- Lagundu? Joder nik ez dut laguntzerik nahi! Nik erdibana egin nahi ditut gauzak! Badakit esaten ari naizenarekin Markel txikia maite ez dudala ematen duela, eta ez da hala. Baina “laguntzearen” kontu horrekin itota nabil beti. Markel ez da nire semea bakarrik, biona da.

- Bai, ulertzen zaitut noski. Nik ere senarrarekin buelta bera. Eta nik ez nuen hau espero. Andonik oso diskurtso aurrerakoia zuela iruditu izan zait beti, “berdintasun” hitzarekin ahoa betetzen zitzaion. Horregatik lasai asko izan nuen Oihan, ziur nintzelako Andonik nirekin batera egingo zuen lan onaz. Baina orain, libratu daitekeen bakoitzean libratu egiten da, eta zeozer esaten badiozu psikologia merkea erabiltzen du: amarekin egotea komeni zaiola, ez naizela Oihanekin “errezetibo” ibiltzen, haurrak traba egiten didala dirudiela...

- Hori gainera! Haurrak zure bizitzako ilusioa izan behar du eguneko hogeita lau orduak derrigor. Kaka egiten duenean, lau orduz etengabe negar egiten duenean, jan nahi ez duenean... Bestela ez zara ama ona. Eta kontuz nekatuta zaudela esatearekin! Super ama batek ez du halakorik inoiz ere esaten!

- Kar, kar, kar! – egundoko elkarrizketa nabil izaten Ainizerekin. - Hori horrela da. Eta gainera emazte eta alaba onak izan beharra aldi berean. Piezaka zatitu behar naute denen artean! Baina badakizu nortzuk diren txarrenak? Ba gu geu! Gauzak diren moduan ozen esan beharrean isildu eta errudun sentitzen gara.

- Guztiz ados. Beldurrak akabatzen gaitu; beste amen aurrean gaizki hartuak izateko beldurrak.

- Hatz erakusleaz seinalatuko gaituztelakoan gaude beti. Eta agian horrela izango da, baina isilik geratuz gero, ez da aldaketarik egongo. Lekuz kanpo sentitzen naiz “ama perfektuen” ondoan, herbesteratuta bezala.

Irakaslea hizketan hasi da berriro.

- Beno, dagoeneko izan duzue denbora komentatzeko eta zuen erantzunak entzutea gustatuko litzaidake.

Bikoteak banatu ditugu eta aurrera begira jarri gara denok. Gehienak folio zurian idatzitakoa hasi dira irakurtzen mekanikoki. Ez dauka meritu handirik. Patatin, patatan, nik nire semeari hau egin nahi diodalako, nire alabak arazo hau daukalako, ikasteko, zeruan Jaungoikoak zatitxo bat gorde diezadan, etabar. Inork ere ez du Ainize eta bion ikuspuntua defendatu. Denek zaindu dute amaren itxura estandarra. Nik esan beharko nuke, ausarta izan behar dut. Hori da Elene! Esan behingoz eta salatu gela honetan zaudetenon egoera, ez esan *amen* berriro ere!



Hara, heldu da Mariperren txanda, erresumako amarik bikainena, psikomotrizitatearen gaiaz gain, haurren neurokirurgiari buruz ere zeozer irakurrita ekarriko du agian. Aire hartu eta...

- Ni, beste guztien moduan, ama ona izan nahi dudalako etorri naiz – bota du irribarre zabal batez guztioi begira.

Erbestea. Akabo. Eserlekuan hil egin naiz pixka bat. Ez dakit nola izan den, baina tximista baten moduan jo nau esaldiak. Erbesteratu bat bihurtu naiz: hemen egon arren, ez naiz euretariko bat. Ama erbesteratu presentzial bat naizela esango nuke. Bozgoragailu bat hartu eta “ama onak ez direnak mesedez euren etxeetara” oihukatu izan balu bezala izan da.

Ainizek ukabilkada jo dit, gure txanda delako eta ni naizelako bozeramalea. Emozio printzak ere nabaritzen dizkiot begietan. Nire printzipioak defendatzeko uea dut orain, nire momentua da, ama erbesteratu guztien izenean hitz egiteko uea dut! Historiako ama herbesteratu guztiakin oroitu naiz. Hori da! Eta zer gero besteez kritikatzeko banaute? Eta zer axola dio ama txarra naizela uste badute? Eta zer inporta zaie Andoniri edo Oihani psikomotrizitateari buruzko klase hau zapuzten badut? Eta zer garrantzia du ikastarora bueltatzeko aitzakia guztiak galtzen badituz? Eta zer axola dio Oihan maite ez dudala uste badute? Eta zer axola dio Mari Karmenek ikastaroak egiteko ere balio ez dudala esaten badituz? Zer axola dio etxean geratu behar badut betirako nire hitzaldiaz damutzen? Irakaslea niri ari da begira, beste guztiak bezala.

- Eta zuk, Elene, esan: zer atera duzu argi elkarrizketan?

- ...

- Elene?

- Gu ere ama onak izaten ikasteko etorri garela – irten zait baxu baxu.

Isiltasun une bat egon dela esango nuke. Ni behintzat, oso isilik geratu naiz. Ainize bere aulkian mugitu da, pixka bat hilda, nire moduan, hitzez erbesteratu izan banu bezala.

*Amen.*

\* \* \* \* \*

*Hitzez idazten da historia, baina ekintzez aldatzen da etorkizuna.*